

# GETARIA

## INAUTERIAK 2014

### KARTEL LEHIAKETA

LEHIAKETA HONEK AURTENGO INAUTERIEN AURKEZPENA EGITEKO AUKERA ESKAINIKO DIGU.

### ANIMA ZAITEZTE PARTE HARTZERA!

### OINARRIAK

#### 1. GAIA: Getaria eta inauteriak.

DERRIGORREZKO TESTUA, "GETARIAKO INAUTERIAK 2014" ETA ..... (LEMA BAT)

2. Getariarrei zuzenduta dago.
3. Adin guztietako herritarrek har dezakete parte.
4. Edozein eratako lanak onartuko dira.  
\*\*\*16 urtera artekoen lanek eskuz eginak izan beharko dute.
5. Kartelak **A3 neurrikoa** izan behar du.
6. Partehartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztuko du.
7. Egilearen izena eta datuak gutun-azal batean sartu behar dira. **KARTELAK EZ DIRA IZENPETUKO.**

8. Lanak aurkezteko azken eguna eta ordua: **OTSAILAK 19, 19:00.**

9. Epez kanpo ez da lanik onartuko.

10. Lanak, udal bulegoetan edo liburutegian aurkeztuko dira.

11. Epaimahaia, Kultura Batzordeak, herriko artistek... osatuko dute.

**Erabakia lanak entregatu eta aste horretan hartuko da.**

12. Saritutako kartelek Getariako Inauteriak 2014ko jai egitaraua iragarriko dute. Kartel irabazleak Udalaren esku geratuko dira, eta aurkeztutako lan guztien argitarapen eskubideak izango ditu.

#### 13. MAILAK ETA SARIAK:

- **2-5 urte bitartekoentzat: PINTATZEKO MATERIALA**
- **1. mailatik 3. mailara: PINTATZEKO MATERIALA**
- **4. mailatik 6. mailara: PINTATZEKO MATERIALA**
- **DBH ikasten ari direnentzat: 60 €**
- **16 urtetik gorakoentzat ... helduak: 150 €**

14. Aurkeztutako kartelekin erakusketa egingo da Udaletxeko sarreran (otsailaren 24tik martxoaren 3ra), eta irabazi ez duten kartelak erakusketa itxi eta hurrengo hamabost egunetan eskuratu ahal izango dituzte egileek.

15. **LEHIAKETA HONETAN PARTE HARTZEAK OINARRI EDO BALDINTZA HAUEK OSORIK ONARTZEN DIRELA ESAN NAHI DU.**

# INAUTERIAK 2014

## KARTEL LEHIAKETA



**Getariako Udala**

[www.getaria.net](http://www.getaria.net)



**GETARIA**